

ETORKIZUNAREN ARIAN

Ez gatz noski etorkizunaren gilitza eskuan dugula, geroaren atea ikidetzeko asmatan. Gutartean nabaritzen diran joera eta egokiera batzuk ikuitzeko asmatan bakarrik gatz gaurkoan. Gure gizartek jasan duen etenak aundietako bat noski au izan da: gure aurrekoak, zergazua egintzerako, igarotako garrarietan, lehenean, ohitutuan billatzen zuten araubidea. Gure garietako ardea, zerbait neurtu eta balortu nahi dugunean, ez dugu lehenagoko araubidekin konparatzen, balio ez duten kontzentzia dugulako.

Lehen ere gertatu dire eten aundiak sarta'deko kondairaren barnean. Aldi batean gizakia, izadiaren kolkoan bizi zan: bertar-bertako ingururak ematen zion gizakiri nahihoan lan, ezin baizuten izadia menderatu. Gerora ordea, Teologi arak arzten du indarra: joera onek berekin ekarriko du alako trantsendalkeri aundi bat. Ondoren, gizakiaren kezka nagusituko da, eta gizakiaren askatasuna eta beretasuna izango dira itxaropen-bide; arazoaketa eta espeimentatzea nagusitzen dihoaz. Azken aldi auek beriz, teknikan baitan kokatzen joan dira. Askok esan dute, eta orain dala gutxi J.M. Barandiaran'i entzun genion, gure ondorengo histori-zaleak gaudainoago aru nagusi baten barruan sartuko dutela, eta gaurdik asten dena beste aru berri bat bezala artu.

Dena dela, nabarmena da zerbait oso berria sortzen ari geran ustea. Baiñan, paradojak edo, sortzen ari gerana zer billakatu duen ez dakigu. Eta, oton danago kaka, gizakiaren arazoak erabat kenponduko zala agindu ziguten aintab teorio eta estrategiak, ez digute baliorik merezi. Ikusten baitugu, gerrak ez dirala bukatu, gizakio alkar jaten dugula, indara duenak agintzen duela, aundiak txikia irentsitzen duela.

-oOo-

Ondo dakigu gure arazoak berri-berriak dirala. Egungo gizakia bizi dituen bide-gurutzeak sekula ez bezalakoak dira. Lehenagoko erantzunetan ez dugu federik. Zerbait berriaren billa asi behar dugula. Eta berriaren billaketan, denok izan nahi dugu aurrenak. Denok agertzen gera gatz moduan: jakzeraz eta bizi-tankeraz.

Baiñan bestalde, gurea oso egokiera larria da. Ez laitu ezer egin dezakegun esperantzirik. Ezer egin alegia, mundu onen zimentuak aldatzeko. Ikusi bai ikusten dugu gauza konkretuak egin dezakegula; baiñan mundua, kontrola ezin ditezkeen indarrak eragiten dutela uste dugu. Onela askatu ezieko korapillo baten barnean arkituko baituzte ikusten du gizakiak bere burua.

Ortiz jabetzak, angustia sortzen zuen orain urte batzuk. Egungo ordea, ohitu egin gera. Eta praktikok izan nahi dugu. Nahiago dugu beteko ez dan idealik ez artu, eta gauzak datozen moduan jasan.

-oOo-

Uste oietan kotatzeak, eta loari emateak, esnatze triste bat ekarriko digu. Gure aurrerabiderako, elburu baikor eta eragin-korrek behar beharrezko ditugu. Gure etorkizunaren jabeak geu izatera irixti gaitzen, ahalegintzen laiatu beharko dugu. Beteko ez ote dan bildurrez, nahiego dugu ez erabaki etorkizunaren arian; baiñan ez erabaki nahia ere, erbakitze modu bat da.

SINIST - AAL DITEKE?

**ZERUKO ARGIA*-ren irakurle bat baiño gelaio, oso arritrik gel-ditua izango dalakoan nago, Aramaioi «Orixol»-ek astekari onen 416 garren zenbakian angu eskualdegoerari buruz diona irakurri ondoren. Batez ere, Aramaioi leendik ezagutzen duena bada.

Sinistgaitz izateko bait da, izan ere, oraindik 40 urte ez dirala, euskaldun zan erri bat, ain aldi gutxiaren barruan, erdaldun bihurtu dela iruntzi bear izatea.

Berri mingari au ematen digu, «Orixol»-k, aipaturiko idazki arrigarrir ortan; eta ez da gezurra, be-

rak diona. Egia da. Neronek, neuk ikusia te oartua gainera, oraindik bi urte ez dirala antxe izandu nintzan egun batean.

Ez nintzan ainbeste arrituko baldin Arrasatetik ain gertu degun Aramaioi leendik ezaguna izan ez banu; oso euskalduna bait zan, arabar uri menditsu au, orain 40/50 urte, orduko izperkaria zan «Aranaxiki»-k eraturiko euskal itzaldeak ematen izutzen nintzanean!

Bizilagun zaar eta gazteen artean, euskal mintzo a baizik ez bait zan sumatzen, Aramaioi, garai artan; eta orain... Ara, zer gertatu zitzaidan, orain bi urte bertan arkitu nintzan egungo gogoangarri artan:

Escola-umeak, erdal-ikastola aurrereko enparantza zabalean, jolasten zebiltzan, oiuka. Erderazko mintzoa zebilketela oarturik, berenganoa eta galde au egin nien:

«Ez aldaketik euskera? —No entendemos —erantzun zidaten, denek batean...

Uste-etzako erantzun mingots au oclitean, sakelean neraman «blok»-delakoa, sakeletik ateru, eta bertantxe, euxe idatzi nuan:

«ARAMAIOI! Nik orain 40/50 urte ezagutu nuan uri EUSKALDUNA, ERDALDUN bihurturik dago orain... Zer esango ote luteke orain berriz piztuta, gertaera au ikusiz, erriko seme euskaltzale porrokatu ita ospetsuak izan ziran «Aranaxiki» idazleak. Bizente Aizteza-Goikotekoz eresariak eta Alta Jauregi «KIMIA» eta «PISA» euskal-liburu arrigarrien egilleak. Berritortu sartu nai izango zuekan, lurrarzpian, agian!».

«Orixol»-ek onela dio, gaurko egoerari buruz, aipaturiko bere idazkari ortan:

«Berriki, Aramaioi sortu da ikastola bat 15 haurrekin». «Baserritako haurrak geroz ta gelaio erdian egiten du». «Kalean berriz, erri gurti erabilten da». «Gure ariak 1.800 bat bizilagun ditu». «Azken urteetan euskera asko galdu da, baiña orain kezkatzen asi

EUSKAL PIZKUNDEA

Irakurtzen, irakurtzen, hauxe bilatu nuen, RIEV, delako kolektzioko liburu batean:

Euskuaren Pizkundea.
«Euskera galtzen zalako, negarrez zeuden bihozak, alaitu ditezela. Euskera maite dezuten euskaldunok, poztu zaitezte. Euskera piztuko da. Orain arte alperrik galdu ditugu gure indar gehienak, euskal zaleak banatuta, bakartasunean eta bakoitza gure alde ik bilbili geraldako. Baiña batu gera indar guztiek in bai egiteko, euskua beste hizkuntzaz goitik jartzeko ahalagintak, eta euskal herri gutzia euskuraz mintzatzen ikusi arte, ez ahal da gure egitekoa bukatuko».

Aintzina euskaltzaleak esandako hitzak dira, baiña gaur egun esanda bezalaxe datozki gu gure errealtateran.

Badirudi, batu egin zirela baiña bat egin gabe gelditu ere, eta bildur naiz, beste horrenbeste gertatuko ote zaigun gaur egunene ere. Ez dedila hala izan; gure eskutan dago.

Baiña nik hitz bat behintzat aldatu egingo nioke hautatu dutan idatzi zaitxo horri.

«Euskua maite dezuten euskaldunok...» ez; honela jarriko nuke nik:

«Euskera behar duzuten euskaldunok...», beharrezko bait dugu, ezin gehiago gure hizkuntza, euskaldun herri bezala jarraitzeko; eta jakingo ahal du

gure herri «hain berri eta hain zahar honek», sendituko ahal du, hobe, behar eta premia hori.

-oOo-

Askotan entzun dut, ez dakit zein ahotatik erlenda: «Háblame en cristiano». Erantzun bat: «Dominus vobiscum».

-oOo-

«Nere aita gaztea zela, horrela esaten omen zuten, norbaiti erderaz hitz egiten entzunda: «Hi, honek erderaz egiten dik», harrututa. «Guk horrela esaten dugu, norbaiti euskera entzunda: «Hi, horrek erderaz egiten dik», harrututa. «Zer esango ote dute gure semeek, eta zein hizkuntzatan?»

-oOo-

Azkenengoko ANAITASUNA-n, artikulua eder bat, irakurri nuen, «Hikako» era defenditzen, X. Kintanak idatzita.

Ados nago berakin hortan, galtzua bait doa era hori, ez dakit zein arario gatik.

Eta «zuka-ko» era, errespetu gehiagoko dala dionak, irakurri dezala Leizarraga, «Hika» Jaungoiko berberari egiten dionean; eta ez dut uste gure idazle zahar hori errespetu gabekoa izango zenik.

-Xabier

ARLOTERRIAK ETA ZITALKERIAK

Homerok esaten zuenez, «hiri asko ezagutzea da jakintza nagusia». Eta, honela jarraitzekotan, gauza bera esango dit.

Alderantziz ere esan liteke honetara: ez-jakintzarik larriena hiri bakar bat besterik ez ezagutzea da. Jakina: Homeroren «hiri», «herri» edo «erresuma» irakurri behar litzake gaurko hizkuntzan. Ez-jakintzarik bildurgarriena, hitz batez, bere zokotik eta bere girotik sekula irten ez denaren arloteria harroputza da.

Gure herriko jendea, ba dakigu (eta aspaldiko partez!) alde batera eta bestera mugitzen hasia da: kotxeak ugaldun egin dira, atzerrialdiak sarrigi gertatzen dira, mugak igarogariago daude, kanpoko «haizeak» hatsartzeo bideak erraztu egin dira apur bat. Hau zigia egia da.

Urrun gaude, halere, zuhurtziari dagokion mugatik. Irakurleak dazkien trabengatik, eta Europako hiru hizkuntza nagusiak (frantsesa, inglesa eta alemana) askotan ez ezagutzeagatik, gure arteko askok ez du, Homerok bezala esateko, «hiririk» ezagutzen. Bat bakarra ezagutzen dute: berena. Eta arloteria honi darraigion segurkeria sinale. Arloterak, behin eta berriz beste lekutan saiatuak eta bartzertuak izan diren zokotierak sinisten ditu. Fanatiko, era berean, teorioren munduko arloterak da: liburu bakar baten gizona da. Honetatik gero, noski, eta ez-jakintza oinharri, gure kaltetan zabaltzen diren leloak guk aisago sinistea. Kanpoan eginak diren esperientziak itzuletara ere ulertarazten zaizkiogu.

Puntu hauetako bat, oso ezaguna gure artean, «arrazakeria» rena da. Europar zehar hamar urte honetan ibili ondoren (eta ez turista gisa) ondorio hau ateratu dut, eta nik bezala beste edonork: arrazakeria haundia dela Europar. Atzkaldeko arrazakeria izkutu horren aurrekaldea, ezagunagoa da: Europar eta Amerikatar ber esanik ez) benetako «ghetto»-ak daude. Bertako ez direnak berez bizi dira leku askotan: hetsita bizi dira baren artean, ez dira bertako gizarteen nahasteta eta gualtzen. Nazio-arteko anaitsunik batere ez dago, zenbaiten teoretian eta guztiaz gogoan baizik. Belgikako bi adibide emango ditut bakarrik.

Antwerpen-en (Amberesen) gaitza ezaguna da judutarren kolonia. Geltokiarren ondoan —erdi-erdian beraz— judutar hauz oso bat da: diamanteriarrena. Dendetan liburu bitxi asko ikus daitezke, judutar idazkeraz idatzirik (bai judu-nara». «Gabeko bederatzit ta erdieten asten dira ikasaldiak».

Gauza gutxi da ori, ajiakabek here ikuntza galdu duan erri bat, berriro bere izkuntzaren jabe egiteko; baiña... zer esango?

«GUTXI OBE, BATEREZ BAIÑO», esan bearko!

Zelata

Hitz batez: arrazakeria jenerala da. Ez arrazakeria bakarrrik: XENOFOBIA HUTSA, arrotzarrekiko gorrotoa arrotza delako, nagusi da leku guzietan. Ez Mendebaldean bakarrrik, kontuz.

Orain dela gutxi txit dato gogoa-gangiari jakinerazi dira Frantziar honi buruz, eta agianbeste batez aipatuko ditut zehazkiago. Honen berri ba geniekien: Argeliako Askañun-Gudu-koan, Frantziako lan-kileek, lantegian lanikide zituzten argeliar langileen kontra jokatuta zuten askotan.

Hots, beranduago egin den inkestak erakutsi duenez, langileen arteko herri arrazakoi haiek ez ziren gerra-giroaren axala: 1970 en gauza bera agertu da. Are gogorrago: langileen artean, eta Komunista Alderdiaren lagunen artean ere, arrazakeriaren etsiak ez dira gehiago beste gizar-teklatan baino! Doi bat besterik ez.

Klase nagusiaren ideologiarren eragina aipa daitezke hau azaltzeko. Baina nola azaldu orduan komunista erresumetako herrien antisemitismo amorratua? Polonian, URSS-en, RDA-an, hau ezin ukatu eta.

Arnold Zweig izan zen, hil aurretik, arrazakeria «sozialista» horren salatari gartsu eta ausarta. Sorreraz judu, hiritasunez aleman, Hitlerengandik ihesi Palestinan 1933 tik 1948 arte egona, A. Zweig Lenin-Saria zen, Ekialdeko Alemaniako Arte Akademian Lehendakari, eta Aberriarren Merezimenduengatik dominadun. Hots, hau zion goratik orain dela dela bi urte l'ardi: «Israelen desegintzen alde egiten den bultzada ofiziala, genozidioaren kide eta Nazien Reich-ek prestatu zuen hilkintza-osoaren parekoa da. Ulbricht-en politika ofiziala salatzen zuen hor Lenin-Sariak. Herri zeharren antisemitismoa ezaguna da Alemanian, eta Hitlerrek ezagutzen zuen.

Xenofobia, hitz batez, gizadi osoaren gaitz negargarri bat da; eta kasu horietan guzietan, ez bertako etnia-izana ez bertakoen kultura-beretasuna arrisrattan ez dauden erresumatan agertu da.

Nola pentsa daitezke, beraz, zital batzuek «borondate onez» esaten ditugunak, euskaldunok arrazakoiak garela? Non dira bada gorrogo aipatu diren lottagarrikerrien mailako gure pekatu bertatik? Botal!

Arazakeria eta xenofobia salatu beharra dago. Bai. Ez da dudarik. Arazakeria inoiz ere onhartu ezina da. Egia. Kugana etorritakoek besoak zabaldu egin behar zaizkie: bai eta bai.

Baiña indartsuen arrazakeria behar da salatua. Gainerakoa tzarkeria hutsa da. Pekatariak juzkatzen hasi aurretik, otoi, irten gaitzen gure zokotik; munduan gertatzen dena kontutan har dezagun; egoeren araberako metro egoki bat hauta dezagun; eta, orduan, eta ez lehenago, etxeko zapi zikinak aipa ditugun.

Ez loritoko bezala, Errege Magoetan sinisturik; eta zer dagigun ez dakigularik. Larrorso



Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxiнок argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.° Burlada-Pamplona).

Donostia: Okendo, 22
Tel. 42.66.66

ARPIDE SARIA:

Barruan	250 pezeta
Korreo batasunetako errietan	300 pezeta
Atzerrietako berrietan	320 pezeta
Aidez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza)

6 pezeta